

editoriala

Udan sartu gara eta honela ikasturte bizi eta itxaropentsu bati amaiera eman diogu. Beharbada gauzak ez zaizkigu atera nahi edo pentsatzen genuen moduan, baina, oraingoan ere, ia eremu guztietan izan da ESK, langileen alde beti, enplegurik edo enplegurik gabekoen alde.

Ikasturte honi, pobreziaaren aurkako Legegintza Herri-ekimen (LHE) bat aurkezteko sinadura bilketa batekin amaiera emango diogu, eta etorkizunari ilusioaz ekin, V. Batzarrantz egiteko gogoz. Nafarroan ere aurkeztu den LHE hau ezingo da bideratu, Nafarroako Gobernuak izapidea atzera bota egin baitu baliabide ekonomiko eskasak argudiatuz. Batzarrak aukera emango digu aurreko Batzarrean onartutakoa berraztertzeko, eta aldi berean barrura so egiteko parada ere emango digu, gure indarrak eta ahuleziak aurkitzeko, baina batez ere gure jarrerak finkatzeko aukera izango dugu eta elkarrekin aritzeko izan nahi dugun sindikatu horretarantz.

Itxaropenerako ikasturtea izan da mugimendu feministaren mobilizazioengatik, gauzak nola egin behar diren garbi eta argi erakutsi baitizkigute. Hilabete hauetan ere ikusi dugu nola pentsiodunek gai diren denok gorriarazteko nabarmendu duten mobilizatorako gaitasunarengatik zein aniztasunarengatik. Arian-eko ale honetan emakume pentsiodunei buruzko artikulu bat daukagu eta mobilizazio hauek ageriko buruetako bat izan den Jon Fanori egin diogun elkarrizketa argitaratzen dugu.

Osakidetzako sekzio sindikalak aldaba jo du bere igartzeko gaitasunarekin, honetaz irailan hitz egin jarraituko dugu; badirudi guzti honek Eusko Jaurlaritza behartuko duela etorkizuneko EPEak gardenagoak egiten eta amarruetatik urrun egiten, amarru hauetaz egunez egun datu gehiago ditugu.

Uda, festetako garaia da, gure herri eta hiri festetan murgiltzen dira, eta Euskal Herrian garbi eta argi dugu ez dugula eraso sexista bat bera ere onartuko, honen intentsitatea zein den berdin delarik. Festa askotan animaliak erabiltzen dira gero eta errefusa handiago jasotzen duen pertsonen dibertimendurako, gure ohiturekin loturiko festak eta gure jendartean oso sustraituta dauden festak birpentsatu behar dira, garaia heldu zaigu festa-ereduen inguruko eztabaidari ekiteko. Hau dela eta, askeintzari gure iritzi-eremua eman diogu.

Ugariak dira sindikatu honek dituen konpromisoak, ugariak diren bezala ESK izan dituen hitzorduak, sindikalgintzarekin zorrozki lotzen ez direnak, Kanboko Bake Konferentziatik hasita Iruñeko Alternatiben Herria-raino. Hitzordu pozgarrienetako bat STEILAS sindikatuarekin batera bere Biltzarrean egotea izan da, bere 40. urteurrena ospatzen. Biltzar honek lehentasunezko harremanak ditugun sindikatuarekin gehiago hurbildu ez ezik, harreman hauek ageriago uzteko eta gehiago sakontzeko ere balio izan du.

Hasieran genion bezala, udan gaude eta gozatzeko eta atsedena hartzeko garaia da, beraz, uda on bat pasa eta itzulera arte.

ARTÍCULO EN CASTELLANO:



<https://www.esk.eus/index.php/es/133-qr/742-editorial-arian-156>